

**HEZKIDETZA SUSTATZEKO
EGITASMOAK**
2011eko Iraila



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Urtxintxa Eskola
3. Aukera berdintasun arloa
 - 2.1 08/09 jarduerak
 - 2.2 Argitalpenak
 - 2.3 Egungo Egitasmoak
4. Eraldatzen



1. SARRERA

Urteak daramatza Urtxintxa Eskolak emakume eta gizonen arteko parekidetasunaren alde lan egiten, eta asko izan dira burututako diagnosiak, azterketak, trebakuntza saioak,...

Aurten 2009ko Emakunde Sarira azkenengo urte hauetan garatu dugun Eraldatzen egitasmoa aurkeztera animatu gara. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin Biolentzia Sexista lantzeko helburua du eta hainbat herrietan burutu den egitasmoa da, oso balorazio onak jaso dituelarik bai ikasleen aldetik zein irakasle eta teknikarien aldetik ere.

Gustoko duzuelakoan, hementxe duzue gure proposamena.

Eskerrik asko.



2. URTXINTXA ESKOLA

URTXINTXA ESKOLA, Astialdiko Hezkuntza eta Suspertze Soziokulturaleko Eskola.

Sorrera

Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Astialdi eta Suspertze Soziokulturaleko Eskola, bere beharrei egokitutako hezkuntza biderik aurkitzen ez zuten astialdiko eta kultura arloko talde batzuei hezkuntza eta jarraikotasuna emateko asmoz sortu zen 1986. urtean.

Helburua

Elkartearen helburu nagusia balioetan oinarritutako astialdi hezitzailea bultzatzea da, jendarteren eraldaketa bermatzeko. Horretarako, gure jardura nagusia pertsonak alor honetan trebatzea da. Jendartetik abiatu eta jendartera iristea.

Zer jorratzen dugu?

Eskolaren ardatz nagusiak hiru dira; euskararen hizkuntz normalizazioa, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta kulturartekotasuna. Nahiz eta badiren beste balio eta gai batzuk presente ditugunak eguneroko jardunean, hala nola, ingurumena, heziketa premia bereziak, partaidetza...

Aisiaren eta astiaren antzaldatzean sinisten dugu eta baita astialdi hezitzailean ere, gauzak horrela, balioetan oinarritutako egitasmoak burutzen ditugu eta helburu eraldatzailea dugu presente. Egitasmo hauetako batzuk honako hauek dira: trebakuntza saioak, materialen sorkuntza, aholkularitza zerbitzua...

Nola jorratzen dugu?

Kalitatezko profesionalak (jendartean aktiboki parte-hartzen dutenak), hezkuntza pertsonalizatua, programa berritzaileak, baliabide material egokiak eta eguneratuak, gaurkoturik dagoen metodologia eta kudeaketa eraginkorra eskaintzen dugu. Horretarako, metodologia parte-hartzailea, aktiboa, praktikoa, ikertzailea eta iraunkorra da erabiltzen duguna.

Eragin eremua eta jasotzaileak

Gure eragin eremua Euskal Herria da eta jasotzaileei dagokienez, adin tarte guztietako pertsonak izaten ditugu gurean. Horrez gain, aniztasunean oinarritzen da gure jasotzaileen profila; kultura, sexu, gaitasun, hizkuntza...desberdinak.

Guk antzemandako beharrei erantzuteko sortutako egitasmoez gain, elkarte, udal, instituzio eta erakunde anitzentzat programak kudeatzen ditugu betiere, egun Urtxintxa Eskolan jorratzen ditugun balioetan oinarrituta.

Urtxintxa Eskolak bere ibilbidea hasi zuenetik 25 urte igaro dira. Aldi honetan zehar 30.000 pertsona inguruk hartu du parte gure ikastaro eta egitasmoetan.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Gure hezkuntza proiektuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- ▶ **Hezkidetzaillea**, jendartean sexuaren arabera ematen den bereizketari aurre eginez pertsona guztiak aukera eta eskubide berdinetan heziz, jarrera ez sexista bati eutsiz.
- ▶ **Kritikoa**, lan egiteko orduan errealitatearen, jendartearen eta pertsonen arteko harremana etengabe aztertzeke eta zalantzan jartzeko joera duena.
- ▶ **Ikertzailea**, inguruan eta norbere barnean gertatzen dena gogotsu aztertzeke jarrera duena dauden beharrez, indarguneez, aukerez eta gabeziez jabetuz.
- ▶ **Dinamikoa**, aktibo eta ekiteko prest dagoena.
- ▶ **Sortzailea**, egoera ezberdinetan irudimena eta dinamikotasunez, era berritzaile batez, aukera ezberdinak eraikitzen dituena.
- ▶ **Iraunkorra**, bere helburu nagusirako bidean, eta egoera berrietara egokituz, lanean dirauena hezkuntza prozesu etengabe baten barnean.
- ▶ **Solidarioa**, jendarte justu, demokratiko eta anitz bat bermatuko duen elkartegintza lortzearen aldeko interes bat aurkezten duen pertsonari irekia dagoena.
- ▶ **Integrala**, garapen prozesua bere osotasunean bultzatzen duena, eskolaz kanpoko eremua ere barneratuz.
- ▶ **Euskalduna**, Euskal Herriak dituen berezko nortasun eta ezaugarri historiko, sozial, kultural eta politikoak transmititzen dituena eta euskararen normalizazioaren bidean lan egiten duena.
- ▶ **Kontzientziaztailea**, jendartean gertatzen diren egoera ezberdinez ohartzeko baliabideak eskaintzen dituena, bakoitzak bere pentsaera propioa garatu ahal izateko.
- ▶ **Moldagarria**, jendartean gertatzen diren aldaketetara etengabe egokitzen dena, gure hezkuntza proiektuarekin bat egiten duen heinean.

URTXINTXA ESKOLAREN BISIOA ETA MISIOA

Urtxintxa Eskola, jendartean eraldaketa bultzatzeko eta agente aktiboak sortzeko, hezkuntzaren eremu ez formalean diharduen elkarte izaerako eragile dinamikoa da, antolaketa eta kudeaketa eredu egoki baten babespean, ekonomiaren eta bere jatorrizko filosofiaren arteko oreka lortu nahi duena.

Horretarako, bere zeregina, hezkuntza proiektuaren ezaugarriak, metodologia eta balioak jendartera transmititzea da, bere jatorrizko izaera mantenduz.

2. AUKERA BERDINTASUN ARLOA

Ondoren, Aukera Berdintasun Departamenduak Aholkularitza Zerbitzurako aberasgarriak izan daitezkeen lan esperientziak laburbiltzen ditu ondorengo kurrikulum-ean:

2005-2009 **NAHIKO EGITASMOA**. Emakunde emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzen saiatzeko, lehen hezkuntza osoan txertatu nahi duen programa dugu hau. Urtxintxa eskolak, NAHIKO hezkidetzarako egitasmoaren barnean ikasleekin egiten diren saio berezien esku-hartzeaz arduratzen da.

- 2005 - 2007. ikasturteetan: 5. eta 6. mailako ikasleekin aritu ginen.
- 2007 - 2009. ikasturteetan: 3. eta 4. mailako ikasleekin arituko gara.

2006-2009 **ERALDATZEN PROIEKTUA**. Nerabezaroan indarkeria sexistari aurre egiteko programa dugu hau. Proiektu honen hastapenetatik zenbait udal eta ikasle talderekin egin izan dugu lan: Zarautz, Getxo, Arrasate, Mungia, Irun, Güeñes, Ondarru...

2.1 08/09 JARDUERAK:

PROIEKTUA	JASOTZ MOTA	BEZEROA
NAHIKO 3.UD	LH 3.maila	Emakunde
Eraldatzen Proiektua	DBHko ikasleak	Galdakaoko Udala
Ginkana Ez Sexista	LH 6.mailako ikasleak	Betiko Ikastola
Produktuen katalogoa	begiraleak, gurasoak, hezitzaileak...	Urtxintxa Eskola
"Azaroak 25", Jolas Hezitzaileak	Gazteak (5-11 urte)	Mungiako Berdintasun Saila
Bullying, Ginkana, eta Bortizkeri Sexista Prebenit	Ikaslegoa	Güeñeseko Berdintasun Saila
Emakumeen Kontrako Indarkeria lantzeko Tailerrak	DBH 3. mailako ikaslegoa	Getxoko Berdintasun Saila
Emakumeen Kontrako Indarkeria lantzeko Tailerrak	3. DBHko ikasleak	Abadinoko Berdintasun Saila
Eraldatzen Proiektua	DBH 3 ikaslegoa	Ondarruko Berdintasun Saila
Eraldatzen Proiektua	3.DBHko ikaslegoa	Arrasateko Berdintasun eta Gazteria Saila
Eraldatzen Proiektua	DBH 3 ikaslegoa	Zarautzeko Berdintasun Saila
Gazteekin indarkeria sexista lantzen	3. DBHko ikasleak	Toki Alai Institutua (Irun)

PROIEKTUA	JASOTZ MOTA	BEZEROA
Ginkana Ez Sexista	Ikasleak	Oiartzungo Udala
Haur Txokoa	haurrak	V.Topaketa Feministak
Hezkidetza Tailerra	Ikasleak	CIP Mungialdea
Ipuinek Kontatzen Dutena	Irakasleak	Soraluzeko Udala
Martxoak 8	Umeak eta helduak	Ortuellako Berdintasun Sailsa
Martxoak 8	Helduak	Portal 71
Martxoak 8	Umeak	Mungiako Berdintasun eta Kultura Sailek
NAHIKO 2.UD	Umeak	Emakunde
Sexualitate Tailerrak eta Guraso Eskolak	Lhko umeak eta gurasoak	Laukizko Euskara Sailsa
Sexualitatea neskentzat eta Martxoak 8 mutilentzat"	Gazteak	Eragintza
"Ipuinek kontatzen dutena" hitzaldia	Emakume Kontseilua	Azkoitiako Berdintasun Sailsa
Azaroak 25: Gazteekin Tailerrak	DBH 3 ikaslegoa	Durangoko Berdintasun Sailsa
Azaroak 25: Gazteekin Tailerrak institutuan	DBH 2 eta 3 ikaslegoa	Durangoko Berdintasun Sailsa
Elkarhezi Proiektua	DBH Ikaslegoa	Arrasate eta Aretxabaletako GKDE
Eraldatzen Proiektua	DBH 3 ikaslegoa	Mungiako Berdintasun Sailsa
Gazteria eta Tratu Onak	18-22 urteko gazteak	Arrasateko Emakume Txokoa
Ginkana Ez Sexista	DBH-ko ikaslegoa	Azkoitiako Berdintasun Sailsa
Ginkana Ez Sexista	LH (5, 6) ikaslegoa	Zarautzeko Berdintasun Sailsa
Ginkana Ez Sexista	Gazteak eta Gurasoak	Zalduondoko Udala
Guraso Eskolak	Gurasoak	Arrasateko Prebentzio Sailsa
Ipuin Kontalariak	6-12 urteko haurrak	Uharteko Berdintasun Sailsa
Jolas Ez Sexisten Hitzaldia	Gurasoak	Uharteko Berdintasun Sailsa
Kontu kontari ateak zabaldu aukera berdintasunari	LH (1,2,3,4) ikaslegoa	Zarautzeko Berdintasun Sailsa
Kontu kontari ateak zabaldu aukera berdintasunari	Umeak	Uribe Kostako Amankomunitatea
Martxoak 8	Umeak	Txirrimorraki Aisialdi Taldea
Nahiko	LH 3 ikaslegoa	Emakunde
Haur hezkuntzatik hezkidetzan hezten GARATU	Irakaslegoa	EJ Hezkuntza
Jolas eta tailer ez-sexisten bilduma	Hezitzaileak, gurasoak, begiraleak, eskolak...	Urtxintxa Eskola
Patioen dinamizazioa	Umeak	Galdakaoko Udala
Aldizkarirako Artikulua	Gurasoak, hezitzaileak	Ordiziako Udala

PROIEKTUA	JASOTZ MOTA	BEZEROA
Genero Berdintasuna eta Hezkuntza GARATU	Irakaslegoa	EJ Hezkuntza
Hezkidetzaren Aholkularitza	LH eta DBH ikaslegoa	Arrasateko Gazteria Saila
Hezkidetzaren Materialen Aurkezpena	Magisteritzako Irakaslegoa	Irakasleen Unibertsitatea
Hezkidetzaren Tailerra	Begiraleak	Bortzirietako Mankomunitatea
Sexualitate Tailerrak	Umeak	Alonsotegiko Herri ikastetxea
Sexualitate Tailerra	Umeak	Orduñako Eskola
Aldizkarirako artikulua	Gurasoak	Lea Artibaiko Aankomunitatea
Hezkidetzaren Tailerra	Kultur teknikariak	Ortzadar
Unitate Didaktiko	Gazteak	Gasteizko Udala
Urtxintxa Eskolaren Aurkezpena	Gizarte Hezkuntza Ikasleria	Irakasleen Unibertsitatea


2.2 ARGITALPENAK:

- **“Hezkidetzaren esku-liburua”** argitaratutako liburuxka, 1999an eta Bizkaiko Urtxintxako partaideei zuzenduta. Euskaraz eta gazteleraz.
- **“Jarduera hezkidetzaillea esku-liburua. Erabilera hezkuntza ez formalean”**, 2000. Gizarteari zuzenduta eta **Emakunde Sariak 2001** saritua izan dena. Hausnarketarako eta ekiterako proposamena hezkuntza ez formalaren arloan lanean ari diren guztiei luzatutako liburua, hau da, jasotzaileak Astialdiko Begiralea Zuzendari eta Suspertze Soziokulturalaren arloko prestakuntzan agente hezitzaile gisa diren pertsonak izan dira. Euskaraz eta gazteleraz.



“Jolas ez sexisten bilduma”, 2003ko urtean egindako ikerketaren ondorioz Astialdiko hezitzaileei zuzenduta daukagu liburu hau, non marko teorikoa eta praktikoa jorratzen den. Euskaraz. **Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k lagunduta.**

- **“Xake Mate. Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta”**. 2004an egindako liburuxka. Udan zehar ume eta gazteen begirale eta hezitzaileei helarazi genien, 1.500 ale egin genituelarik. Bizkaiko Foru Aldundiak lagundu zuen, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak, hain zuzen ere. Euskaraz. **Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta.**



“**Aisia. Astia. Emakumeak**”. 2004an ere ikerketa hau argitaratu genuen, Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan aurkeztu genuelarik. **Emakundek lagunduta**.

- “**II Xake Mate. Astialdian indarkeriari aurre egiteko aholku sorta**”. 2005ean egindako liburuxka. Bizikidetzarako kanpaina baten barruan kokatuta. Udan zehar ume eta gazteen begirale eta hezitzaileei helarazi genien, 1.500 ale egin genituelarik. **Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta**. **Bizkaiko Foru Aldundiko 2006ko Berdintasun Saria**


- “**III Xake Mate. Astialdian ipuinen bidez egiteko aholku sorta**”. 2006an egindako zen urte bereko udan zehar ume eta gazteen hezitzaileei helarazi genien. Honekin batera **magikoak**, banatu zitzairen udalekuetan parte **Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta**.



sexismoari aurre liburuxka. Argitaratu begirale eta ipuin bat, **Gozoki** hartzen duten umei.



“**Ipuinak ez sexistak izateko gida**”. 2006ko azaroan kaleratua. Ipuinen bidez sexismoa nola zabaltzen eta iraunarazten den aztertu dugu eta honi aurre egiteko proposamenak landu ditugu. Honetaz gain hezitzaileentzako ipuinak lantzeko ariketa praktikoak eskaintzen ditugu. **Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k lagunduta**.



2007ko udan, Urtxintxa eskolak Xake Materen **IV.edizioa** kaleratu zuen, “**Emozioen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta**”. **Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta**. Honekin batera, udalekuetan egon ziren umei “**Emozioen Memory-a**” jolasa banatu zitzairen.



Urte berean, **Jolasen Laborategia**. **Bizikidetzarako Jolasak** liburua **Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari** esker errealitate egin zen.

Liburu honen bitartez, hezitzaileak diren guztiei (gurasoak, irakasleak, astialdiko begiraleak, ...) jarrera sexistak ekiditeko gomendio sortak eskaini nahi izan dizkiegu, jolasek ezkutuan duten balore karga azalduz.

2008ko udan, **V. edizioa** kaleratu genuen, “**Sexualitatearen lanketaren bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta**”, eta honekin batera, **Gorputzen Dantza jostailua** banatu egin zen 1.600 haurren artean. Jostailu zein gida, **Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari** esker posible izan zen.



2.3 EGUNGO EGITASMOAK:

- **Lanbide orientazio ez sexista ikastaroa**

SARRERA: *Lanbidea aukeratzeko momentuan norberaren gaitasun eta interesen ga*

NORI ZUZENDUA: *DBHko ikasleei zuzendua.*

IRAUPENA: *6-8 ordu*

EDUKIAK:

- *Genero eraikuntza sistemak*
- *Genero rolak eta estereotipoak.*
- *“Maskulinizatutako” zein “feminizatutako” ogibideen informazio eta esperientzia ezberdinak.*
- *Lan erreproduktiboaren garrantzia eta balorazioa.*
- *Historian zehar emakumeek egindako lanaren garrantzia eta balorazioa.*

- **Elkar erantzukizunerako ginkana**

SARRERA: *Pertsona orok, gizonak eta emakumeak, arduraren pertsonalak, familiartekoak eta lanbidekoak bateratzearen inguruan hausnartzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak izan nahi du.*

NORI ZUZENDUA: *LH eta DBHko ikasleei*

IRAUPENA: *2 ordu. Lehenengo orduan Ginkana eta Bigarren orduan hausnarketa saioa.*

EDUKIAK:

- *Sexu estereotipoak eta Rolak.*
- *Esparru publikoa eta pribatua.*
- *Lan banaketaren garrantzia.*
- *“Jardunaldi bikoitza” kontzeptua.*

- **Hezkidetzan aditua**

SARRERA: *Aukera berdintasunean hezten ikasteko trebakuntza teoriko praktikoa.*

NORI ZUZENDUA: *irakasleei, ikasleei, begiraleei...*

IRAUPENA: 80 ordu teoriko eta 20 praktiko

EDUKIAK:

- Sexu genero sistema
- Feminismoaren historia
- Hezkidetza hezkuntza formalean eta ez formalean

- **Sexualitatea lantzeko tailerrak**

SARRERA: Gure gorputza nolakoa den ezagutzeko, nola funtzionatzen duen, bere sentitzeko gaitasunaz ohartzeko, besteekin nola erlazionatzen garen hausnartzeko... azken finean, gure gorputza eta nortasuna hobeto ezagutzeko tailerrak..

NORI ZUZENDUA: LH eta DBHko ikasleei

IRAUPENA: Hitzaldia 2 ordu. Ikastaroa: 4-6 ordu

EDUKIAK:

- Gorputzaren osotasunaren garrantzia ohartu
- Estetika / estereotipoak
- Sexualitateari buruzko ereduak, topikoak, mitoak... aztertu
- Aurreiritziak, jarrerak, portaerak...
- Konfiantza eta burujabetza
- Gure sexualitate eredua, eskaintzen diguten sexualitate eredua eta aniztasun sexuala

- **Hasi eta hezi: Jolas hezkidetzaileak eta bizikidetzarako jolasak**

SARRERA: Ikastaro honen bitartez, hezitzaileak diren guztiei, jarrera sexistak ekiditeko gomendio sortak eskaini nahi diegu, jolasek ezkutuan duten balore karga azalduz.

NORI ZUZENDUA: LH eta HHko irakasle, hezitzaile, begirale eta gurasoei zuzendua.

IRAUPENA: Tailerra, 2-6 ordu

EDUKIAK:

- Jolasaren garrantzia eta funtzioak
- Jolas motak
- Zer dira Jolas hezkidetzaileak? Zer dira jolas kooperatiboak?
- Bizikidetzarako Jolasak: talde izaerarako jolasak, gure buruaren irudia indartzeko jolasak, Komunikazio hezkidetzailerako jolasak, jolas kooperatiboak...

- **Ipuin kontalaritza, Bizikidetzarako ipuinak**

SARRERA: Gure gorputza nolakoa den ezagutzeko, nola funtzionatzen duen, bere sentitzeko gaitasunaz ohartzeko, besteekin nola erlazionatzen garen hausnartzeko... azken finean, gure gorputza eta nortasuna hobeto ezagutzeko tailerrak..

NORI ZUZENDUA: HH eta LHko ikasleei

IRAUPENA: Hitzaldia, 2 ordu

EDUKIAK:

- Munduko ipuinak
- Berdintasunerako ipuinak

- **Hezkidetza tailerrak**

SARRERA: . Generoaren azterketatik abiatuta, neska eta mutiko bakoitzaren garapen integrala lortzen lagunduko duten jarrera, balore eta gaitasunak landuko dituen

NORI ZUZENDUA: LH eta DBHko irakasle, hezitzaile, begirale eta gurasoei zuzendua.

IRAUPENA: Hitzaldia, 2 ordu eta ikastaroa 4-8 ordu

EDUKIAK:

- Genero eraikuntza sistemak. Genero identitateak eta rolak
- Jendarteratze desberdindua
- Jendarteratze prozesua genero ikuspegitik

- **Ipuinek kontatzen dutena**

SARRERA: Ipuinen bitartez zabaltzen diren eduki sexisten azterketa, sexu edo generoaren araberako rolak erreproduzitzen ez dituzten ipuinen aldeko apustua eginez

NORI ZUZENDUA: LH eta HHko irakasle, hezitzaile, begirale eta gurasoei zuzendua.

IRAUPENA: hitzaldia 1.5 ordu eta ikastaroa 4 ordu

EDUKIAK:

- Ipuinen jatorria
- Ipuinen funtzioak giza garapenean
- Ipuinak eta adinak
- Ipuinen azterketa
- Ipuin sexistak eta ez sexistak
- Baliabide hezkidetzailleak.

4-“ERALDATZEN” INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEN

1. SARRERA

ERALDATZEN PROIEKTUA Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleekin INDARKERIA SEXISTA lantzeko Urtxintxa eskolak sorturiko hezkuntza proiektu bat da. Gaur egun, indarkeria sexista jendarteko arazo kezagarri eta garrantzitsuenetarikoa bilakatu da. Botere harremanek sortzen dituzten diskriminazio-egoera ezberdinak direla medio, gaur egungo gazteen artean oso txertatua dago.

Bizi garen jendarte patriarkal honek, sexuen araberako eraikuntza soziala egin eta emakume edo gizona definitzen ditu; genero bakoitzari jarrera, rol eta ezaugarri batzuk esleitzen dizkiolarik. Sexuen araberako banaketa honek botere harremanak ditu oinarrian eta estrukturaliki eragiten du; ondorioz, jendartea antolatuz sinbolikoki eremu guztietan, eredu maskulinoa izanik beti ardatza.

Aipatutakoak, gazteengan eragin zuzena du, horregatik, jarrera sexista, diskriminatzaile eta oldarkorrek erreproduzitzen dituzte. Gainera, diskurtsiboki berdintasunaren inguruan hitz egin arren, eguneroko praktika sotilek (botere harremanetan oinarriturikoak), jarrera sexista hauek ikusezinak bihurtu eta indarkeria sexista jendartean errotzen dute. Zoritxarrez, indarkeria sexista identifikatzeko zailago bihurtzen da. Gauzak horrela, ERALDATZEN PROIEKTUAK, DBHko ikasgeletan, indarkeria sexistaren zioak, adierazleak eta prebentzioa lantzea du helburu.

Honenbestez, agerian geratzen da, momentu honetan beharrezkoa dela indarkeria sexista gainditzeko konponbideetan aritzea. Horregatik, ikasleekin batera lan egitea ezinbestekoa deritzogu, elkarrekin etengabeko hausnarketa burutuz. Hausnarketa hau burutu eta indarkeria sexista prebenitzeko, osotara, bost ordu emango ditugu ikasgela bakoitzean hurrengoia jorratuz:

- Lehenengo saioan, sexu-genero eraikuntza eta jendarteratze prozesu bereiztua landuko dugu.
- Bigarren saioan, maitasunaren inguruan hausnartu eta maitasun eredu ezberdinak ezagutuko ditugu, harreman osasuntsuak bultzatuz. Neskekin eta mutilekin, espazio banatuetan, maitasun erromantikoaren inguruan eta honek generoen eraikuntzan dituen ondorioen inguruan hausnartuko dugu.

- Hirugarren saioan, indarkeria mota ezberdinak eta hauek gertatzen diren esparruak ezagutuko ditugu. Horretaz gain, indarkeria sexistari zer den eta nola gauzatzen den hausnartuko dugu.
- Azken saioan, indarkeria sexistari aurre egiteko baliabideak eskaini eta elkarlanean honi aurre egiteko giza abileziak eskuratzeko ariketak burutuko ditugu.

2. PROGRAMA

Esan bezala, ikastaroa zortzi ordutakoa izan da, bi ordutako 4 saiotan banaturik. Saio bakoitzean gai ezberdinak landu dira, beti ere aurreko saioetako edukiak begi-bistatik galdu barik. Saio bakoitzean honako gaiak landu izan ditugu:

1. SAIOA: SEXU-GENERO SISTEMA eta JENDARTERATZE PROZESUA

- Zeintzuk dira sexua eta generoaren arteko desberdintasunak?
- Zertan gara ezberdinak neskak eta mutilak? Zergatik?
- Gaur egun, bizi garen jendartean, zer nolako baloreak atxikitzen zaizkie neska-mutilei?
- Zertan gara berdinarak? Zertan ez?
- Nolakoak izan beharko ginateke neskak eta mutilak?
- Zergatik izan behar ditugu ezaugarri ezberdinak neskak eta mutilak edo emakume eta gizonak? Horrela izan beharko zen?
- Nondik ikasi edo nondik datozkigu ezberdin egiten gaituzten ezaugarri hauek? Nola?
- Jendarteratze prozesuan eragina duten esparruak: eskola, familia, lana, komunikabideak,
- Jendarteratze prozesu horretan diskriminaziorik ematen al da? Zer da sexismoa?

2. SAIOA: HARREMAN AFEKTIBO OSASUNTSUAK

- Zer esan nahi du “maitatzeak”? Zer ez du esan nahi?
- Nola bizi beste pertsonekin?
- Badago maitasun erromantikorik?
- Zer esan nahi du “harremana” ? Zeintzuk izango lirateke harreman osasuntsu bat edukitzeko baldintzak?
- Badago maitasun erromantikorik?
- Autoestimua garrantzia.

3. SAIOA: INDARKERIA SEXISTA LANTZEN

- Zer da?
- Zergatik gertatzen da?

- Zertarako balio du, zein da bere helburua?
- Indarkeria motak: fisikoa, psikikoa, sexuala, ekonomikoa...

4. SAIOA: INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEN

- Nola egin diezaiokegu aurre biolentziari?
- Jendarte-abilezien jabekuntza.
- Konpromezu sozial eta pertsonalak.

3. METODOLOGIA

Eraldatzen proiektua aurrera eramateko erabiliko dugun metodologia parte hartzailea eta dinamikoa izango da. Ikasleen adina kontutan hartuta, beraien interes eta grinen mundura modu natural batean hurbiltzea izango da gure helburua.

Norberaren esperientzia pertsonaletik abiatuta, bizipen desberdinak oinarri edukita, arazoaren azterketa bat egiten ahaleginduko gara. Horregatik, ikasleak izango dira programa honen protagonistak, beraien hitza eta hausnarketa izango da garrantzitsua.

Modu honetan, denon artean eztabaidatuz eta hausnartuz, ondorioak ateratzeko gai izatea da helburua. Ikasleek buruan dituzten ideiak atera ahal izateko teknikak erabiliko ditugu.

